



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



2019ko irailaren 16tik 20ra
Undermount-en (Igeldo, Donostia)
Galtzagorri elkarte
galtzagorri@galtzagorri.eus
943 471 487

MARRAZIOAK XI

ERREZETARIK EZ DAGO

Ilustrazio eta sukaldaritza, sukaldaritza eta ilustrazio tailerra

ELENA ODRIOZOLA eta GUSTAVO PUERTA

ZER:

Liburu-albumek eta errezeta-liburu ilustratuek antza daukate. Bi generoetan sekuentzia bidez egiten da narrazioa. Bietan testua eta ilustrazioa osagarriak dira. Teorian irakurlea aintzat hartuta sortuak dira biak ala biak. Areago, bi generoetan arazo berberak sor daitezke, hala nola estetizismoa, didaktismoa, zapore eza ala gehiegizko gozoa.

Komunean dituzten ezaugarriez gain, bi generoak elkar lotu daitezke istorio bakarrean non pertsonaia nagusiak errezeta bat elaboratzen duen. Hala bada, baten egitura –osagaiak, prestaketa eta emaitza– eta bestearena –hasiera, muina eta amaiera– ondo-ondotik doaz. Bietan narrazio unitate horrek derrigor funtzionatu behar du sukaldaritzako planoan nola fikzioaren planoan.

Azkenik, antzekotasunak aurkitu daitezke sukaldariaren eta ilustratzailearen ofizioan. Alde batetik, hainbat teknika eta elementu/osagai gutxi batzuk gobernatu behar dituzte sortutako horrek bat eta bakarra balitz bezala funtzionatu dezan. Halaber, tradizioetik edaten dute, kultur konbentzioak erabiltzen dituzte edo bogan dauden joerei muzin egiten diete ala onartzen dituzte.

Finean, sukaldaritza eta ilustrazio tailerra proposatzen dugu, non errezeta baten narrazioa egingo dugun eta sukaldean liburu bat gertatuko dugun.

METODOLOGIA:

Goizeko jarduerak sukalde bueltan antolatuko ditugu, eta jatekoen prestaketa ardatza izango da. Arratsaldeko jarduerak, aldiz, ilustrazioan zentratuko ditugu. Lantaldeak osatuko ditugu egunero, eta sukalde lanak prozesuaren erregistro grafikoarekin tartekatuko ditugu, baita elkarrekin prestatutako jatekoekin ere. Bazkalostean, jarduera bakoitzean sortutako zirriborroekin lan egingo dugu. Honakoak dira landuko ditugun gaietako batzuk: osagaiak eta irudiaren esanahia, sukaldaria eta narratzailea, errezeta eta sekuentzia, sukaldaritzaren teknikak eta teknika artistikoak, ikuspuntua eta zaporea. Ibilbide hori egiteko adibide bibliografikoak eta ikus-entzunezkoak erabiliko ditugu. Finean, parte hartzaileei liburu-album errezeta bat osatzen lagunduko dien materiala erabiliko dugu.

Tailerrean parte hartzeko interesa dutenek atariko plater baten, plater nagusi baten eta postre baten ilustrazioa bidali beharko dute. Platerak aukeratzekoan kontuan izan beharko dute plater horien guztien elaborazioa ikastaroan zehar egin ahal izan beharko dutela; ez dituzte, hala ere, guztiak prestatu beharko. Marrazkiaren kalitatea baloratuko da, baita errezetak sortzen duen gosegarria ere.

IRAKASLEAK:

Elena Odriozola

Gustavo Puerta

NOIZ ETA NON:

2019ko irailaren 16tik 20ra, Undermount-en (Aita Orkolaga pasealekua 46, Igeldo, 20008, Donostia). * Donostiako autobus linea bertan geratzen da, 16. zenbakia, Donostiako Gipuzkoa plazan hartzen dena.

Ordutegi jarraitua izango du aurten tailerrak: 10:00etatik 17:30etara, ordu erdiko atsedenarekin. Bertan sukaldatu eta bazkalduko da.

Asistentzia derrigorrezkoa da: parte hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.

NORENTZAT:

Gehienez 10 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Parte hartzaileek Euskal Herrikoak izan behar dute.
- Galtzagorri Elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskadiko Ilustratzaileen Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.
- Parte hartzaileek ez dute zertan lan argitaraturik izan behar.

ESKAINZA:

Topaketa hauetan **formazioa doan** eskainiko zaie irakasleek aukeratzen dituzten 10 lagunei. Guztira, 35 orduko tailer praktikoa egiteko beka bana eskuratuko dute.

IZEN EMATEA:

- Ilustratzaile bakoitzak hiru plateren ilustrazioak bidali beharko ditu: atarikoak, plater nagusia eta postrea.
- Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko du:
 - Curriculumuma
 - NANaren kopia bat
 - Posta elektronikoaren helbidea
 - Telefono zenbakia

Dokumentazioa wetransfer bidez bidali beharko du administrazioa@galtzagorri.eus –era.

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2019ko uztailaren 12a** izango da.

Aukeratutakoei 2019ko uztailaren 28rako erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEAK:

Galtzagorri Elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

943 471 487

www.galtzagorri.eus

administrazioa@galtzagorri.eus